



ETBren eredia aztergai

■ EITBren erediari buruzko gogoeta albiste da egunotan. Kolore ezberdinetako politiko eta kazetariak gai honen inguruan mintzatu

dira. Guk ETBren etorkizunaz kezkatu ageri den Joan Mari Torrealdai eta Joseba Alvarez ekarri ditugu hona.

Biharko ETB

MARTXOAREN 4an Zallo eta biok EITBko Parlamentu-Kontrolerako Batzordearen Bilkuran izan ginen txosten bana irakurtzera ditauk. Aurrean eta inguruan kolore guztietako politikoak.

Ramon Zallok han esandakoak interesgarriak ezeez nobedosoak gertatu zitzaizkien hango politikoei. Halaxe aitortu zuten batzuk, gainera. Askok eta askok ez zuten asmatu nondik heldu ere. Ur sakonegiak. Sekulako errepasoa eman zien Zallok telebista-ereduaz, programazio-ereduaz, eta informatibo-ereduaz. Biharko problemak atzoko ideia eta antolamenduz ezin direla konpondu adierazi zien lagunak.

Gertakari honekin pare bat gauza azpimarratzea gustatuko litzaidake: bat, EITBri buruzko gogoeta-forumen eskasia, hutsunea, egungo eredia ondo aztertuz etorkizuneko bideratzeko. Eta bi: EITBri buruzko eztabaidetan zein proposamenetan —eta zertan esanik ez, agintean— instantzia politikoan ia monopolioa.

ZALLOREN aurretik mintzatu nintzen ni ere areto berean. Hizkuntz normalizazioaren ikuspegitik mintzatu nintzen. 10 urteren bueltan non geunden azaldu nahi izan nuen nik. 10 urte eta gero hau? Ba bai. Baina aurrera-orduko esan behar dut eskal telebista, ETB1, ez dela ahuntzaren gauerdiko eztula. Sekulako urratsa izan dela eskalgintzan, jauzi kualitatiboa, agian orain arteko handiena lortu dela horrekin. Jaso egin du euskara eta euskal hiztuna. Euskal telebistatik gabeko Euskal Herria imaginatzea ere kosta egingo litzaiaguke orain.

Eta halare, ez da dena urte gorria ETBn, hamar urte pasata gero. Horregatixe hain zuzen kezkatzen naute horren biziki hurrengo 10 urteek. Zergatik?:

—10 urte pasa ondoren ere, eta nahiz ahoz esan ETB1 onartzen dela, euskarazko telebista mugatu eta baldintzaizten saiatzen dira talde politiko batzuk.

—10 urte pasa eta gero, telebista-kudeatzaileek ETB1 telebista osarean eredia aitortuz segitzen dute baina ez diote ematen lehenatasunik.

—10 urte pasa eta gero, hasieran baino areago, klabe politikoan planteatzen da telebista, klabe kulturalaren kaletan.

—10 urte pasa eta gero, arduradun politikoan aldetik ETB1i buruzko legitimazio-indefinizioa somatzen dut: hizkuntz normalizaziotik audientziarainako bide luzean, hor nonbait kokatzen dira justifi-

kazio-argumentuak, komenentzien arabera baina audientziazik hurbilago gehienetan.

Guzti honekin esan nahi baitut ez dudala oso garbi ikusten etorkizunerako oinarri sendorik, eta eskal telebista arazo serioa dela politikoen eskuetan uzteko. Datoren 10 urteci begira, nahi dugun telebista horretaz gogoeta sakona *forum* desberdinetan interesgarri ezetik beharrezko ikusten dudala.


EGUN indarrean egon dagoen telebista erediari joerazko artisku kezagarriak ikusten diot, eta neure buruari galdetzen diot, kezkatu, ea telebista honek iraungo duen, ea telebista honek zer eskainirik

izango duen, ea telebista honek hizkuntz normalizazioaren funtzioa beteko duen, etc.

Kontu handia izan beharko da prentsa elebidunaren porrota ebitatzeko, enpresa beraren bi adar izanik euskarazko eta erdarazko ETBak. Sinergia aipatu bai, baina diglosia gertatu egin daiteke honelakoetan, bi hizkuntzen nahasketa dela tarteko. Telebista diglosiko batek luzazora ez luke zentzu gehiegirik hiztun komunitatearentzat. Programazioan eta presuposatuan ETB1i lehenatasuna ematen ez bazaito bigarrena lehenari erraz nagusituko zaio.

Labur-beharrez, puntu bat gehiago aipatuko dut soilki: eskaintzan frogatu behar du bere burua eskal telebistak, ez audientzian. Ezin du TVEren eta pribatuen arma berdinez jokatu. Zerbitzu publiko gisa mantenduz, programazio egoitu, berezi, propio eta diferentziatua eskainiz bakarrik ziurta dezake bere etorkizuna, nere ustetan. Jokabide honek ez du ostrukarenarekin zerikusirik. Konpetitibitatea bere taiman uler-tzea da zioa, ez besterik.

JOAN MARI TORREALDAI
JAKINEKO ZUZENDARIA



ETB2 erdaldunak ETB1 euskalduna bazter dezake

DUELA hamar bat urte Euskal Herriaren Euskaraz (EHE) erakundeak urtebetez luzatu zuten 'Gabonetarako telebista euskaraz' kanpaina ondoren, ETB sortu zen Ramon Labaien euskaltzalearen eskutik. Garai hartan euskal gizartearen zegoen euskararen aldeko presio sozialak, Gasteizko Legebiltzarreko indar korrelazioak eta Ramon Labaien Kultur saiburuaren euskaltzalearen eskutik, ETB proiektua euskara hutsez lan egingo zuen kanal baten erara finkatzea bultzatu zuten.

Baina ETB euskara hutsez garatzeak EAJren mezu politikoa eta ideologikoa euskal gizartearen behar den bezala zabal-tzea oztopatzen zuela ikusirik (hauteskunde garaian nagusiki) eta PSOE TVEren bidez bere lan politikoa Euskal Herri osora barreiatzen zuela oharturik, EAJK, ETB1 en osagarri izan behar zuen ETB2 ia erdaldunari eman zion sorrera. Ondorioz, EAJK markatutako estrategiak ETB1n bazterketa eta ETB2 ia erdaldunaren indarketa ekarri du hamar urte hauetan. TVE eta Telenorte (Telenavarra ahantzi gabe) legeak diotaren kontra gaztelera hutsez diharduten bitartean.

ETORKIZUNA beltzagooa da telebista kate pribatuak sortu direnetik. ETB1ek ez bait du kompetentzia TVEri bakarrik egin behar, baizik eta hemen ikus daitezkeen gaztelarazko kanal guztiei eta baita ETB2ri ere. Ikuspuntu hau oraindik larriagoa da EAJK aurkeztu duen txostena irakurri ondoren, bertan isladatzen denez, ETB2 arduradunen ustez ETB1k ez omen due-lako inorekin lehiatu behar euskaraz fun-

tzionatzen duen bakarra delako. Planteamendu hau faltsua da euskaldun guztiok elebidunak izanik, ETB1 ikusi behar dugun gainerako gaztelarazko telebista kanalak ere begira genitzakeelako. Ikusle euskaldunaren ikuspuntutik beraz, ETB1k kanal espainol guztiekin lehiatu behar du.

EITBko teknikoek diotenez, berriz, euskaldunak, elebidunak ez direnez, ez dute euskararik ulertzen ezta ETB1 begiratzen ere, kirol emankizunak salbu. Hauen ikuspuntutik, beraz, ETB2 gainerako gaztelarazko telebista kanalekin lehia dagoenez eta etorkizunean lehia hau handituko denez, gero eta handiagoa izan beharko du ETB2ren inguruko inbertsioa eta gastoa. Aurkeztu den txostenean agertzen den inbertsio planak gertakari hau azpimarratzeaz gain, ETB1 praktikan bigarren mailako kanala bilakatuko dela ziurtatzen du.

AURREKONTUEZ gain, EITBren txostenean azaltzen zaigun ETB1 eta ETB2ren funtzio banaketak eta 1992ko euskal telebistaren programaketa berriak gure baieztapena hau konfirmatu baino ez digu egi-tzen. Integrala omen den ETB1, praktikan 'dibertimendurako' kanal bat bilakatzeko tendentzian murgilduta dago, informatibo txikiak eta nagusiki haur eta gazteak begira egindako telebista bat bihurtzen ari da. ETB2, berriz, helduentzat eta 'integrazio bultzatzeko' kanala bihurtzeko ildoan jarri du EAJK, informatibo luze eta sakonkin, elkarrizketa saio askorekin, politika, ekonomia, ekologia eta baita kirolaren inguruko eztabaida programekin. ETB2n eus-

karaz emititzen dena gazte eta haurrentzako programazioa da.

Bi hitzetan esanda, EITBren planteamenduak ETB1en integraltasuna zapuzten du emankizunaren aldetik, informatibo nagusiak eta eztabaida programa garrantzitsu gehienak ETB2n bait daude, eta ETB2 erabat diglosikoa finkatzen du hizkuntzaren parametrotik aztertuta, kirol transmisioak eta marrazki biziak euskaraz eskaintzen diren bitartean informazioa, dibulgazioa eta partehartzea gaztelaraz bultzatzen bait dira.

Gauzak horrela, hizkuntz parametrotatik abiatuz argi eta garbi esan beharra dago gaur EITB inguruan aurkezten zaigun txosten honetan azaltzen den ETB1 eta ETB2 banaketaren onarrarian dagoen planteamendua erabat desegokia dela.

BESTALDE, EITBren inguruko hizkuntz problematika ezin daiteke inolaz ere ETB1 eta ETB2ren emankizunaren euskararen erabilpena mugatu, EITBek benetako Hizkuntz Politika orokorraren beharra bait du. Tamalez, hamar urte hauetan EITBk izan duen iharduerak zer bait argi erakutsi badu, hizkuntz politika oso baten falta izan da. Zein da bertako produzioaren euskalduntzea bultzatuko duen EITBren politika? Non dago EITBko langile berrien kontratazioa eta zaharren birziklaia ziurtatzen omen duen politika garatzen duen plangintza eta hamar urteetako emaitza?

Guzti hau kontutan izanik, hizkuntzaren erizpideetatik abiatuz datozten urteetan Euskal Herriko telebista eta irriti esparrua

euskalduntzen hasteko EITBn hainbat al-daketa bideratu behar dira.

Lehen. Hizkuntz euskalduna, programazioz integrala, kulturaz integratzaile eta sozialik partehartzailea izan dadin, ETB1 benetan indartu beharra dago, kanal honen inguruan egingo den produzioari, pertsonal kontratazioari eta azpiegitura mailako inbertsioari lehenatasuna emanaz.

Besterik, emisio orduetatik eta gasto eta inbertsio kopuruetatik begiraturaz, ETB2 bigarren mailako telebista kate bat bilakatu behar da. Gure ustez, bigarren kanalak ez du integrazioa helburu nagusitatz izan behar, ETB1ekio subsidiarioan izan behar du. Hizkuntz euskalduna eta bere iharduera nagusia informatiboak gaztelaraz eskaintzera mugatuko litzateke.

Hirugarrena, EITBko Zuzendaritza Batzordeak benetako Euskararen Zerbitzu tekniko bat antolatu beharko luke, Ente honen pertsonal, publizitate, produzio eta funtzionamenduan euskararen erabilpena arautuko duen Hizkuntz Politika finkatu eta garatzeko.

Azkenik, EITBko administrazio Kontseiluan parte hartzen duten alderdi politikoei TVE eta Radio Nacional de Españak elebitasuna errespetatu dezaten eskatu beharko lukete, onart ezina bait da Madrilgo Gobernuren esku dauden komunikabide publiko hauek egiten duten legez kontrako euskararen bazterketa.

JOSEBA ALVAREZ
HERRI BATASUNAKO EUSKARA
BATZORDE NAZIONALEKOA